



HARRERA PISUA
OSTATU ZERBITZUA
ARAUTZEKO ARAUAK
ERABILERA ARAUAK

2020KO EKAINAREN 24AN

OSOKO BILKUREAK
2020KO EKAINAREN 24KO
OHIKO BATZARREAN HARTU EBAN ERABAGIAREN BITARTEZ
EMON ZAN ONTZAT



AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA

SARRERA.

1. artikulua.- Helburua..... 3 orr.

II. KAPITULUA.

ONURADUNAK

2. artikulua.- Onuradunak zehaztea: betekizun orokorrak..... 4 orr.

3. artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak 4 orr.

III. KAPITULUA.

SARBIDE PROZEDURA

4. artikulua.- Prozedura arrunta..... 7 orr.

5. artikulua.- Premiazko prozedura 7 orr.

IV. KAPITULUA

HARRERAREN IRAUPENA

6. artikulua.- Harreraren iraupena..... 8 orr.

V. KAPITULUA

HARRERA BERTAN BEHERA UZTEA ETA AZKENTZEA.

7. artikulua.- Harrera aldi batez bertan behera uztea..... 8 orr.

8. artikulua.- Harrera azkentzea..... 9 orr.

VI. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA.

9. artikulua.- Tasak..... 9 orr.

10. artikulua.- Pertsona erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa..... 10 orr.

11. artikulua.- Zerbitzua erabiltzearen ondoriozko gastuak..... 10 orr.

VII. KAPITULUA.

UTZARAZPEN ADMINISTRATIBOA

12. artikulua.- Utzarazpen administratiboa..... 11 orr.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

I. ERANSKINA: Larrialdi harrerarako etxebizitza eskatzeko eskabidea. 12 orr.

II. ERANSKINA: Larrialdi harrerarako etxebizitza lagatzeko kontratua. 17 orr.



HARRERA PISUA / OSTATU ZERBITZUA ARAUTZEKO ARAUDIA ERABILERA- ARAUAK

ZIOEN AZALPENA

Araudi honen helburua egoera kritikoak artatzeko harrera pisua / ostatu zerbitzua arautzea da, hain zuzen ere, norbaitek aldi batez etxebizitzarik ez badauka, genero indarkeria egoeretan eta/edo pertsonen integritatea arriskuan jartzen duten bizikidetzak gatazka larrien kasuetan.

Baliabide honen zailtasunen artean aipatu behar da larrialdi/premiazko egoera bati aldi baterako erantzuteko okupatutako etxebizitzak, askotan, aurreikusi baino askoz denbora luzeagoz okupatzeko joera dagoela, bertan hartutako pertsonen ohiko bizitoki bihurtuz. Hala gertatzen da, batez ere, zailtasun ekonomiko nabarmenak dituzten pertsonak etxebizitza independente bat lortzeko zailtasunak dituztelako, baina baita berariazko erregulaziorik ez dagoenez araudi aplikagarria arlo zibilekoa delako ere, eta ez du ahalbidetzen baliabide sozial gisa tipifikatu beharko litzatekeena modu azkarrean kudeatzea. Hortaz, ezinbestekoa da gogoan hartzea horrelako ostatu zerbitzu bat erabiltzea zerbitzu publiko bat emateari lotuta dagoela eta, horrenbestez, Administrazio Publikoen zerbitzuen prestazioa arautzen duen araudiari erreparatu behar diola.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea dela bide, horrelako zerbitzu publikoak ematea udal eskumena da. Lege horrek 22. artikuluan ezartzen duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoak, lehen puntuaren barruan, lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak aipatzen ditu, eta horien barruan, hain zuzen ere, ostatu zerbitzuak: harrera pisuak, etxebizitza babestuak (1.9 puntua), etab. 27.2. a) artikuluan dioenez, udalen gizarte zerbitzuei dagokie lehen mailako arretako zerbitzu horiek bermatzea. Eta, berriz ere, administrazio publikoen eskumenei buruzko atalean (III. titulua - 1. Kapitulua) ezarri da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak ematea udalen eskumenekoa dela (42. artikulua, 4. puntua).

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa onartu zuen 185/2015 Dekretuak zerbitzu eta prestazio horiek arautzen ditu, eta eskumenen banaketa, sarbide betekizunak eta prozedura xedapenak garatu ditu; zerbitzu bakoitzaren edukia IV. Kapituluan ezarri zuen. Ordenantza arautzaile hau 185/2015 Dekretura egokitzen da eta, zehazki, bertan definitutako Ostatu zerbitzua/ harrera pisua zerbitzura (1.9.1).

Gure udalerrietako populazioa eta ezaugarriak direla medio, planteatzen den baliabideak izaera malgua izan behar duela ulertzen dugu, gure udalerrietan sor daitezkeen premia egoera desberdinetara moldatzeko gaitasunarekin.

I. KAPITULUA

SARRERA.

1. artikulua.- Helburua.

Araudi honen helburua egoera kritikoak artatzeko harrera pisua / ostatu zerbitzua arautzea da, hain zuzen ere, norbaitek aldi batez etxebizitzarik ez badauka, genero indarkeria egoeretan eta/edo pertsonen integritatea arriskuan jartzen duten bizikidetzak gatazka larrien kasuetan, Arratiako Udalen Mankomunitatearen etxebizitzetan.



Zerbitzu hau ostatu ematera mugatzen da; etxebizitza horietan, beraz, ez zaie bertan bizi diren pertsoneri tutoretza pertsonalik edo zaintzarik eskainiko; hala ere, Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetatik kasuen jarraipena egingo da.

II. KAPITULUA.

ONURADUNAK

2. artikulua.- Onuradunak zehaztea: betekizun orokorrak.

1. Arratiako Udalen Mankomunitatearen parte den edozein udalerritan erroldatutako pertsona edo bizikidetzaren unitatea izan daiteke harrera pisu/ostatu zerbitzuaren erabiltzaile, eskaera egin baino gutxienez hiru hilabete lehenagotik baldin badago erroldatuta, edo gutxienez 10 urtez Arratiako edozein udalerritan erroldatuta egon bada, etxebizitzarik ez badauka edo inguruabar hauen ondorioz bizikidetzaren gatazka larriak bizi baditu:

- Tratu txar fisikoak eta/edo psikikoak tarteko, familia harreman sostengaezinak izatea.
- Epai judizial irmoz agindutako etxe utzarazpenak, jurisdikzio zibilaren aurrean jarraitutako prozeduretan, baliabiderik ez izatearen ondorioz ez ordaintzeagatik, jabeak behar duelako edo aurri adierazpena edo parekoak direla medio.
- Harrera behar duen/duten pertsonaren/pertsonen bizilekua den eraikina, udal adierazpena tarteko, berehalako aurri egoeran aitortzea.
- Familia unitatearen bizilekua den eraikina baliogabetzen duen hondamendia, sutea, uholdea edo pareko fenomenoak.
- Bestelako larrialdi egoerak.

Horrelako kasuetan, Arratiako Udalen Mankomunitateko gizarte langilearen aldeko txostena ezinbestekoa izango da, 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

3.1. Eskubideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu zituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko II. Kapituluko lehen atalean ezarritakoaz gain, harrera pisu/ostatu zerbitzuaren pertsona erabiltzaileek larrialdi etxebizitza erabiltzeko eta zerbitzua EAEko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea izango dute.



3.2. Betebeharrak

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu zituen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko II. Kapituluko Bigarrena atalean ezarritakoaz gain, araudi honetan ezarritako zerbitzuaren pertsona erabiltzaileek honako betebeharrak hauek ere izango dituzte:

1) Eskatzaile guztiek araudi honetan ezarritakoa jakin beharko dute etxebizitzara sartzean edo horren aurretik, eta araudi honetan ezarritakoa onartzen dutela idatziz adierazi beharko dute, harrera pisu / ostatu zerbitzuaren antolaketa, funtzionamendu eta bizikidetzaren baldintzak onartuz, baita informazio, orientazio eta laguntza zerbitzuen esku hartzea ere. Erabiltzaileei araudiaren kopia bat emango zaie, eta ahoz ere jakinaraziko zaie. Arau hausteren bat egonez gero, arau hauslea kaleratu ahalko da.

2) Ez titularra, ez beste inor ezingo da udal erroldan etxe horretan erroldatu.

3) Zerbitzu hauek erabiltzea eragin duen egoera aldatzeko beharrezko administrazio kudeaketak eta/edo kudeaketa juridikoak eta/edo bestelakoak egin beharko ditu. Arratiako Udalen Mankomunitatearen arabera komenigarria baldin bada, neurri horiek plaza okupatzeko kontratu batean edo horri gehituko zaion eranskin batean zehaztu ahalko dira; eranskin hori kontratuaren parte izango da.

4) Arratiako Udalen Mankomunitateak baimendu gabeko pertsonen ezingo zaie zerbitzua erabiltzen utzi, haiekin ahaidetasun harremana edo edozein harreman izan arren.

5) Pertsona egoiliarrek etxebizitzaren espazioa ondo erabiltzeaz arduratuko dira, baita bertako objektuak, gailuak eta tresnak ondo erabiltzeaz ere; horrez gain, etxebizitza zaindariak ere arduratuko dira. Etxebizitza edo bertako objektuak gaizki erabili edo zerbait galduz gero eragindako kalte guztiez erantzun beharko dute.

6) Pertsona egoiliarrek auzokideen erkidegoan hartutako erabakiak betetzeko betebeharrak izango dute. Harreran hartutako pertsonen artean desadostasunak edo gatazkak sortuz gero, etxebizitzaren arduradunek egoera aztertuko dute eta beharrezko neurriak erabakiko dituzte; erabaki horiek onartu eta bete egin beharko dira.

7) Bizikidetzaren unitate desberdinetako pertsonen etxebizitza partekatuz gero, elkarrekin bizitzeko arauak bete egin beharko dira, besteak beste garbiketan, higiene arloan, ordutegietan, etab. Erabiltzaile bakoitza bere gelako ordena eta garbiketaz eta bizikidetzaren unitate osoaren objektu pertsonalez arduratuko da. Erabilera komuneko elementuetako lanei dagokienez (pasabidea, sarrera, egongela, sukaldea, komuna, etab.), errespetatu eta bete beharreko akordioa lortuko da.

8) Etxebizitzan ezingo da bertan bizi direnek sustatutako inolako obrarik egin. Ezingo da altzari edo etxe objekturik sartu alde aurretik baimena lortu ez bada; erabilera pertsonaleko objektuak baino ez dira baimenduko.

9) Etxebizitza barruan edozein substantzia toxiko, droga, etab. izatea eta/edo kontsumitzea erabat debekatuta dago, baita etxebizitzan gai sukoiak, lehergarriak edo antihieginkoak edukitzea edo biltegitzea ere. Harrera pisua / ostatu zerbitzua familia etxebizitza gisa erabiltzea baimentzen da eta, hortaz, bertan ostatu hartu dutenetako inork ezingo du legeak debekatutako jarduerarik garatu (finkari kalte egingo diotenak, arriskutsuak, deserosoak, nekagarriak edo osasunerako kaltegarriak direnak), eta ezingo da irabazteko asmoa duen jarduerarik garatu. Horrez gain, zerbitzuan ezingo da animaliarik sartu, itsu-txakurren kasuan izan ezik. Arma edukitzea berriaz debekatzen da.



10) Zerbitzuaz arduratzen diren Arratiako Udalen Mankomunitateko langile arduradunei edo Jarraipen Batzordeak baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzara sartzea ahalbidetuko zaie. Intimitatea beti errespetatuko da eta, horrenbestez, modu berezian tratatuko diren kasuetan salbu, ordutegia bi aldeen artean adostuko da.

11) Etxebizitza erabiltzen hastean, hartutako pertsonari etxebizitzako giltza emango zaio, eta etxebizitza hori beste bizikidetzaren unitate batekin partekatuz gero, bere bizikidetzaren unitateari esleitutako gelei dagozkien giltzak ere emango zaizkio. Pertsona egoiliarrek ezingo dute etxebizitzaren giltzaren kopiarik egin, ez eta giltzak beste norbaiti utzi ere. Onuradun bakoitzaren ardura da. Etxebizitzako egonaldia bukatzean, onuradunek giltzak Gizarte Langileari edo baliabideaz arduratzen den pertsonari entregatu beharko dizkiote.

12) Zerbitzuaren helbidea anonimotasunean gorde beharko da.

Artikulu honetan zerrendatutako betebeharrak eta eskubideez gain, erabiltzaileek betebeharrak hauek ere izango dituzte:

a) Zerbitzuan hobetu edo konpondu beharreko edozer egonez gero, Arratiako Udalen Mankomunitateari jakinaraztea; esku hartzea berariaz debekatzen da, aldez aurreko baimenik ez badago. Matxura bat etxebizitzako onuradunaren ekimenez konpontzea soilik baimenduko da jaiegunetan edo udal zerbitzuen funtzionamendu ordutegitik kanpo sortutako premiazko egoeretan; horrelakoetan, aipatutako zerbitzuei ahal bezain azkar jakinaraziko zaie.

b) Araudi honetan eta ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera ebatzitako prezioa ordaintzea.

c) Etxebizitzara sartzean etxebizitzako objektuak eta elementuak berrikustea. Egonaldia bukatzerakoan, objektuak eta elementuak berrikusiko dira, baita etxebizitza eta altzariak egoera onean egotea ere. Inbentarioan jasotako elementuren bat falta bada edo egoera onean ez badago, erabiltzaileak kasuan kasuko elementua konpondu edo berria erosteko gastuak ordaindu beharko ditu. Gastu horiek ordaintzeko epeak eta inguruabarrak inbentarioaren dokumentu berean jasoko dira.

d) Egoiliarrek harrera pisuan utzitako objektu baliotsuak edo dirua galduz gero, Arratiako Udalen Mankomunitateak ez du erantzukizunik izango.

e) Arratiako Udalen Mankomunitateak eskaera egiten dionetik zazpi egun naturaleko epean etxebizitza utzi beharko du.



III. KAPITULUA.

SARBIDE PROZEDURA

4. artikulua.- Prozedura arrunta

Prozedura hasteko pertsona interesdunak eskaera egin beharko du, Arratiako Udalen Mankomunitateko organo eskudunera inprimakia zuzenduz; pertsona eskatzaileak berak edo horren ordezkari legalak inprimakia sinatu beharko du.

Prozesuaren edozein unetan pertsona interesdunak eskaera bertan behera utzi ahalko du; hala gertatuz gero, idatziz egin beharko du. Hala jokatzuz gero, espedientea artxibatu egingo da.

Eskaera Gizarte Langileak izapidetu eta baloratuko du, eta egingo duen txostenean honako hauek zehaztuko dira:

- Pertsona eskatzailearen edo eskatzaileen identifikazio datuak.
- Normalean eskatzailearekin bizi diren gainerako pertsonen identifikazio datuak.
- Harrerako arrazoiak
- Harrera jasoko duten pertsonen egoera ekonomikoa.
- Harrera ematearen komenigarritasunaren inguruko balorazioa; positiboa izanez gero, eman beharreko denbora proposamena.

Aipatutako txostena eta bertan jasotako inguruabarrak egiaztatzeko beharrezko dokumentazio osoa espedientean bilduko dira, eta horrekin batera ebazpen proposamena aurkeztuko zaio organo eskudunari.

Azkenik, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, harrera pisura/ zerbitzura sarbidea izateko eskaera onartuz edo ukatuz. Eskaerari Arratiako Udalen Mankomunitateko erregistroan sarrera ematen zaionetik gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da ebazpena. Epe hori eten egingo da eskaeretan zerbait zuzendu behar den kasuetan, jakinarazten den unetik bete arteko tartean edo, bestela, emandako epea bukatu arte.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro bada berariazko ebazpenik eman gabe, ulertu ahalko da eskaera ukatu egin dela (nolanahi ere, erakundeak ebazpena emateko betebeharra izan dezake), pertsona interesdunak aukerako berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko errekurtsioa aurkeztu ahal izateko.

Nolanahi ere, pertsona onuradunak eskaera dokumentua (I. Eranskina) sinatu beharko du, baita plaza okupatzeko kontratua ere (II. Eranskina). Eskatzaileak aipatutako dokumentua sinatzen ez badu, zerbitzuari uko egiten diola ulertuko da.

5. artikulua.- Premiazko prozedura

Premiazko eta muturreko beharrian kasuak artatzeko, presidenteak zerbitzuan berehala eta kautelaz sartzeko baimena eman ahalko du, kasuan kasuko dokumentuak sinatu ondoren, eta eskabidea behar bezala izapidetu gabe egon arren. Jarraian, lehenago ezarritako prozedura arrunta abiaraziko da, behin betiko ebazpena emateko; zerbitzuan sartu eta hurrengo 15 egun naturalen barruan eman beharko da ebazpena.



Premiazko prozeduraren bitartez etxebizitzara sartu ondoren pertsona onuradunak uko egiten badio espedientea hasi edo izapidetzen kolaboratzeari, edo, tarte horretan egiaztatuz gero ebazpena negatiboa izan behar dela, zerbitzua gehienez 7 egun naturaleko epean uzteko betebeharra jakinaraziko zaio, jakinarazpena jasotzen duen unetik zenbatzen hasita. Hala egiten ez badu, pertsona erabiltzaileak nahitaez kaleratuko dira, 11. artikuluan aurreikusi bezala.

IV. KAPITULUA

HARRERAREN IRAUPENA

6. artikulua.- Harreraren iraupena

Zerbitzua emanaz gero, organo eskudunaren ebazpenean harreraren iraupena jaso beharko da; kasuaren inguruabarren eta zerbitzua behar izatea ekarri duen egoera onbideratzeko aukeren arabera ezarriko da iraupena.

Nolanahi ere, harreraren gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, etxebizitzan sartzeko datatik zenbatuta. Denbora tarte hori organo eskudunaren ebazpen bidez baino ezingo da luzatu; ebazpen horretan luzapenaren iraupena ezarriko da, betiere beste etxebizitza alternatibak ezinezkoak badira geratuko da luzapen horren premia frogatuta.

V. KAPITULUA

HARRERA BERTAN BEHERA UZTEA ETA AZKENTZEA.

7. artikulua.- Harrera aldi batez bertan behera uztea

Espedientea izapidetu ondoren eta gizarte zerbitzuen proposamenari jarraituz, zerbitzuaren prestazioa aldi batez bertan behera uztea ebatzi ahalko da, organo eskudunaren ebazpenaz, pertsona interesdunari entzunaldia eskaini ondoren. Ebazpen hori pertsona interesdunari eta zerbitzua ematen duen entitateari jakinaraziko zaie, hala badagokio, lege eskatutako formalitatez eta epeetan.

Zerbitzua arrazoi hauengatik utziko da bertan behera:

- Gizarte ongizateko langileei edo haiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzeari debekatzea.
- Zerbitzua modu desegokian edo neurrigabean erabiltzea. Etxebizitza modu desegokian erabili dela ulertuko da aldaketak egiten badira elkar errespetatzeko eta bizikidetzarako arauetan, zerbitzuko zuzendaritzako edozein pertsonari jakinaraziz gero, kontratuan agertzen ez diren pertsonen zerbitzuan sartzen eta egoten uzten bazaie, zerbitzuaren baliabideak eta instalazioak modu desegokian erabiltzen badira, bertako jarduerak asaldaturik gero, edozein motatako liskarrak sustatu edo horietan parte hartzen bada, norbait irainekin edo biraoekin iraintzen bada edo errespetu gabe trataturik gero, edozein objektu lapurtuz gero edo norberaren edo beste pertsonen segurtasuna nahita arriskuan jartzen bada.



- Bi ordainagiri arrazoirik gabe ez ordaintzeagatik.

Ebazpen bidez egonaldia bertan behera uzteko epea igaro ondoren, erabiltzaileak berriz ere zerbitzura sartzeko aukera izango du; hala ere, horrek ez du nahitaez esan nahi hasieran aurreikusitako egonaldia modu proportzionalan luzatuko denik. Egonaldia bertan behera utzi den aldiaren erabiltzaileak zerbitzuaren prezio osoa ordaindu beharko du, oro har ordaintzetik salbuetsita egonez gero salbu.

Egonaldia bertan behera utzi behar dela ezarri ondoren, erabiltzaileak ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du zerbitzua.

8. artikulua.- Harrera azkentzea

Espedientea izapidetu ondoren eta Gizarte Ekintzan Teknikoaren proposamenari jarraituz, zerbitzuaren prestazioa horretarako ezarritako data baino lehen azkentzea ebatzi ahalko da, Gobernu Organo eskudunaren ebazpenez, pertsona interesdunari entzunaldia eskaini ondoren. Ebazpen hori pertsona interesdunari eta zerbitzua ematen duen entitateari jakinaraziko zaie, hala badagokie.

Zerbitzua arrazoi hauengatik azkenduko da:

- Harrerarako aurreikusitako denbora tartea bukatzea.
- Pertsona erabiltzaileak uko egitea.
- Heriotza.
- Zerbitzuaren prestazioa eragin zuen premia kausa desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartutako datuak faltsuak izatea edo datuak ezkutatzea.
- Zerbitzua jasotzeko eskatutako betekizunen bat galtzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- Zerbitzuko hiru ordainagiri arrazoirik gabe ez ordaintzea.
- Araudi honetan pertsona erabiltzaileentzat aurreikusitako bestelako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- Bi egun baino gehiagoz baliabidean ez egotea eta ospitalean ingresatuta egoteagatik edo ezinbesteko arrazoiekin ez justifikatzea. Denbora tarte hori egoera berezietan luzatu ahalko da; dagokion txosten teknikoan justifikatu beharko da.
- Araudiko edozein puntu ez betetzea, horrek pisuan bizi diren gainerako pertsonak arriskuan jartzen baditu.

Zerbitzua azkentzea aitortu ondoren, pertsona erabiltzaileak ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du zerbitzua.

VI. KAPITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA.

9. artikulua.- Tasak

Zerbitzu hauen erabiltzaileek urtero kasuan kasuko ordenantza fiskalean ezarriko den tasa ordaindu beharko dute.

**10. artikulua.- Pertsona erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa**

Pertsona erabiltzaileek kopuru horren %100 ordaindu beharko dute egoera hauetan:

- Baldin eta ostatu hartu duten pertsonen diru-sarrerak badira kide kopuru bereko bizikidetza unitaterako oinarrizko errentarako indarrean dagoen kopuruaren %150 baino handiagoak.
- Pertsona erabiltzaileak aseguruaren bat baldin badauka kontratatuta eta aseguruak harrera eragin duen ezbeharraren edo inguruabarraren ondoriozko gastuak estaltzen baditu, betiere ostatu alternatiboa aseguraturako kontzeptu gisa jaso ahal bada.
- Zerbitzua erabiltzeko eskabidea beste erakunde batek egin badu bigarren artikuluan azaldutako inguruabarretan.

Pertsona erabiltzaileek kopuru horren %50 ordaindu beharko dute egoera hauetan:

- Baldin eta ostatu hartu duten pertsonen diru-sarrerak badira kide kopuru bereko bizikidetza unitaterako oinarrizko errentaren %150 edo txikiagoak eta % 100 baino handiagoak.
- Egonaldian zehar, pertsona erabiltzaileak laguntzaren bat jasotzen badu, publikoa edo pribatua, laguntza hori alokairua ordaintzeko erabiliko da oso-osorik.

Pertsona erabiltzaileek ez dute inolako tasarik ordainduko horrelako egoera batean baldin badaude:

- Baldin eta ostatu hartu duten pertsonen diru-sarrerak badira kide kopuru berdinerako eskaera aurkezteko unean indarrean zegoen oinarrizko errentaren parekoak edo txikiagoak.
- Ostata ematen bada pertsona erabiltzaileak balizko eraso fisikoetatik, psikikoetatik, sexualetatik edo bestelakoetatik babesteko, diru-sarrerak edozein direla ere.

11. artikulua.- Zerbitzua erabiltzearen ondoriozko gastuak

Erkidegoko gastuak, baita lokalaren hobekuntzak eta konponketak ere, Arratiako Udalen Mankomunitateak ordainduko ditu, pertsona erabiltzaileei leporatu ahal zaizkien arrazoien ondoriozkoak salbu. Bidenabar, Arratiako Udalen Mankomunitatearen ardurapean joango dira higiezina eduki edo erabiltzeari lotutako tasa eta zerga guztiak, hondakinen bilketa tasa barne.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen ardurapekoak izango dira, halaber, elektrizitate, gas eta ur gastuak; hala ere, Mankomunitateak beharrezko neurriak hartu ahalko ditu pertsona erabiltzaileek aipatutako hornidurak neurrigabe erabiltzea saihesteko eta, hala badagokio, neurrigabeko erabileraren ondorioz kalteak konpontzeko.

**VII. KAPITULUA.****UTZARAZPEN ADMINISTRATIBOA****12. artikulua.- Utzarazpen administratiboa**

Araudi honetan aurreikusitako arrazoen edo emandako epea bukatzearen ondorioz premiazko pisua utzi behar duten pertsonak horri uko egiten badiote, nahitaez behartu ahalko dira, utzarazpen administratiboaren bitartez, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 120. artikuluan eta hurrengoetan edo horren ordezkoko araudietan aurreikusitako izapide prozedurak jarraituz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Araudi honetan ezarritakoaren aurkakoa zedarritzen duen edo horrekin kontraesanean dagoen maila bereko edo beheragoko arau oro indargabetu da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hogeita hamar egunera sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA: Larrialdi harrerarako etxebizitza eskatzeko eskabidea.

II. ERANSKINA: Larrialdi harrerarako etxebizitza lagatzeko kontratua.

Igorren, 2020ko ekainaren 24an

**ANEXO I ERANSKINA****ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO OSTATU ZERBITZUAN/ HARRERA
PISUAN PLAZA ESKAERA***SOLICITUD DE PLAZA EN EL SERVICIO DE ALOJAMIENTO/ PISO DE ACOGIDA DE
ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA***1. ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE**

1. Deitura / Apellido 1	2. Deitura / Apellido 2	Izena / Nombre	NAN- DNI/ AIZ- NIE
Jaioteguna / Fecha Nacimiento			
Urtea / Año	Hila / Mes	Eguna / Día	

2. FAMILIA-UNITATEAREN DATUAK / DATOS DE LA UNIDAD FAMILIAR

Izen – abizenak Nombre y apellidos	NAN – DNI /AIZ - NIE	Jaioteguna Fecha de nacimiento	Ahaidetasuna / Parentesco

3. KONTAKTUKO DATUAK / DATOS DE CONTACTO

Kalea / Calle					
Blokea / Bloque	Zk. / N.º	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Eskua / Mano	Atea / Puerta
Udalerrria / Municipio			PK / C.P.	L.H.- Probintzia / T.H. - Provincia	
Telefonoak / Teléfonos					



4. ESKAERAREN ARRAZOIAK / MOTIVOS DE LA SOLICITUD

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. ESKATZEN DU / SOLICITA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO-KLAUSULA****Tratamenduaren arduraduna**

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua derogatzen duen (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak (EB) xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizugu datu pertsonaletarako fitxategi informatizatu batean sartuko direla eskabide honetan jasotako datuak eta eskutatutako ebazteko nahiz eskabidearekin lotutako zerbitzu, programa eta prestazioak eskuratzeko prozeduraren ondoriozkoak, tratatu ahal izateko.

Fitxategiaren arduraduna Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Ekintza arloa da. Helbidea: Elexalde kalea 49, 48140, Igorre (BIZKAIA).

Tratamenduaren xedea

Zure baimen espresua behar duen datuen tratamenduaren xedea da Larrialditarako Harrera-etxebizitzan plaza prozeduratik eratorritako beharri zehar erantzutea.

Tratamenduaren legitimazioa

Interesdunaren adostasun espresua. Baimen hori edozein momentutan errebokatzeko eskubidea izango du, eta horrek ez du eraginik izango errebokatu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren ziligatasunean.

Datuak kontserbatzea

Administrazioaren eskumenaren barruan kudeatu behar den jarduerara administratiboak dirauen bitartean kontserbatuko dira datuak

Interesdunaren eskubideak

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko, tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko eskubideak dituzu, eta eskubideok baliatzeko, idazki bat bidali behar diozu tratamenduaren arduradunari Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bideetako bat erabilita.

Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Ekintza Batzordeari dagokio eskabideak ebaztea.

Halaber izango duzu eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean (Datuen Babesteko Euskal Bulegoa).

Datuen jasotzaileak

Plaza-esleipena egiteko, hurrengo paragrafoetan zehaztutako erakundeetako datuak eta txostenak eskatu ahal izango zaizkie.

Era berean, hauei laga ahal izango zaizkie zure datu pertsonalak:

* Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari, beste tributu-agentzia batzuei, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eta pentsioak edo bestelako sarrerak ordaintzen dituzten beste entitate batzuei, beharrezko diren kontsulta guztiak egiteko, zer egoera ekonomiko eta zer ondare duzun egiaztatu ahal izateko eta zure beharri zehar erantzuteko eskubidea jaso ahal izateko.

CLÁUSULA INFORMATIVA DE PROTECCIÓN DE DATOS**Responsable del tratamiento**

De conformidad con lo previsto en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y en el Reglamento (UE) 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), le informamos de que los datos personales recogidos en esta solicitud, así como los datos que se deriven del procedimiento para la resolución de lo solicitado y de los procedimientos de acceso a los servicios, programas y prestaciones a los que dé lugar la valoración, se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal para el tratamiento de dichos datos.

El responsable de este fichero es el Área de Acción Social de Arratiako Udalen Mankomunitatea, con domicilio en C/ Elexalde nº 49, 48140, Igorre (BIZKAIA).

Finalidad del tratamiento

La finalidad del tratamiento de dichos datos, para el que se requiere su consentimiento expreso, es dar cumplimiento a las necesidades derivadas del procedimiento de plaza en vivienda de acogida de urgencia.

Legitimación del tratamiento

Consentimiento expreso de la persona interesada. Por tal motivo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento, lo cual no afectará a la licitud del tratamiento basada en el consentimiento previo a su retirada.

Conservación de datos

Los datos serán conservados durante el desarrollo de la actividad administrativa objeto de gestión en el ámbito de la competencia de la administración.

Derechos de la persona interesada

Podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación al tratamiento y oposición de sus datos de carácter personal, y para ejercerlos deberá enviar escrito a la persona responsable a través de cualquiera de las formas establecidas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La resolución de dichas solicitudes corresponde a la Comisión de Bienestar Social de Arratiako Udalen Mankomunitatea.

También dispone del derecho a presentar reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos (Agencia Vasca para la Protección de Datos).

Destinatarias/os de los datos

En el marco del procedimiento de asignación de plaza, podrán realizarse consultas y solicitar información a las entidades señaladas en los apartados siguientes.

Igualmente, sus datos personales podrán ser cedidos:

*Al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia y a otras agencias tributarias, así como al Instituto Nacional de la Seguridad Social y otras entidades pagadoras de pensiones u otros ingresos, para realizar todas las consultas que fueran necesarias, al objeto de comprobar su situación económico-patrimonial, de cara a facilitar la intervención más idónea a sus necesidades.



* Osakidetza - Osasunerako Euskal Zerbitzuari, beste edozein herri administrazioen mendekoak edo haiei atxikitakoak diren osasunaren arloko bestelako erakunde, entitate edo unitateei, Beharrezko diren kontsulta guztiak egiteko eta haiei guztiei zure osasunari buruzko datu eta txostenak eskatzeko eta emateko, bermatu ahal izateko eskura ditzakezun arreta-zerbitzuen prestaziorik onena jasoko duzula.

* Bizi zaren udalerriko erroldaren bulegoari, behar diren kontsulta guztiak egiteko, eta ohiko egoitza eta helbideari buruz behar diren datuak eta txostenak eskuratzeko, bermatzeko kasuan kasuko zerbitzuan sartu edo bertan geratzeko baldintzak betetzen dituzula.

* Zure seme-alabak prestakuntza-jardueraren bat egiten egonez gero, hezkuntza-zentroei, beharrezko diren kontsultak egiteko eta prestakuntza- edo akademia-egoerari buruzko datuak eta txostenak eskatzeko.

* Eusko Jaurlaritzari tea Euskal Enplegu Zerbitzuari (Lanbide), bere nor bere konpetentzien ariketarako.

* Al Servicio Vasco de Salud - Osakidetza y a otras instituciones, entidades o unidades sanitarias de cualquiera de las Administraciones Públicas, para realizar todas las consultas, así como solicitar y facilitar los datos e informes que fueran necesarios con relación a su situación sanitaria y social con la finalidad de garantizar la mejor prestación de los servicios de atención a los que pudiera acceder.

* A la Oficina del Padrón Municipal del ayuntamiento de residencia para realizar todas las consultas necesarias, y obtener cuantos datos e informes fueran necesarios en relación a su residencia y domicilio habitual con la finalidad de garantizar el cumplimiento de los requisitos exigidos para el acceso a o permanencia en el servicio de que se trate.

* A los centros educativos en que estuvieran tus hijos e hijas llevando a cabo actividades formativas, para realizar todas las consultas, así como solicitar y facilitar los datos e informes que fueran necesarios con relación a su situación académica y formativa.

* Al Gobierno Vasco, y al Servicio Vasco de Empleo-Lanbide para el ejercicio de sus respectivas competencias.

*Baimena ematen dut nire datu pertsonalak goian adierazitako helbururako erabiltzeko.
Consiento el tratamiento de mis datos personales para la finalidad descrita anteriormente.*

*Baimena ematen dut nire datu pertsonalak goian adierazitako erakundeei lagatzeko, deskribatutako helburuetarako. Era berean, erakunde horiei kontsultak egin eta txostenak eskatu ahal izango zaizkie.
Consiento que mis datos personales sean cedidos a las entidades señaladas anteriormente para las finalidades descritas, pudiendo realizar consultas y solicitar informes a las mismas.*

*Baimena ematen dut nire datu pertsonalak bereizita erabiltzekoa, estatistikak eta ikerketa zientifiko zein akademikoa egiteko eta Arloak berezko dituen eginkizunak betetzeko
Consiento el tratamiento de mis datos personales, de forma dissociada, para la producción de estadísticas e investigación científica y académica y para las funciones propias del Área.*

*Nire erantzukizunpean adierazten dut eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla.
Declaro bajo mi responsabilidad que son ciertos los datos consignados en la presente solicitud.*

*Nire erantzukizunpean adierazten dut jakinarazi egin zaidala gertatzen den edozein aldaketaren berri eman behar diodala Gizarte Ekintza Arloari.
Declaro bajo mi responsabilidad que quedo enterada/o de la obligación de comunicar al Área de Acción Social cualquier variación que pudiera producirse en lo sucesivo.*

(Tokia/lugar)**(Urtea/Año)****(Hila/Mes)****(Eguna/Día)**

.....

.....

.....

.....

Sinadura / Firma**(Adierazi izena-deiturak eta NAN/AIZaren zk.)****(Indicar nombre-apellidos y Nº de DNI/NIE)**



DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN

- NANaren fotokopia edo, pasaporte, AIZ, edota, bestela, eskatzailearen eta bere bizikidetzaren kideen nortasuna egiazta dezan beste edozein agiri mota / Fotocopia del D.N.I., pasaporte, NIE, o en su caso de cualquier otro documento acreditativo de la personalidad de la solicitante y de todos los miembros de la Unidad Convivencial.
- Bere ardurapean adingabekorik denean: familia-liburuaren eta/edo, halakorik denean, zaintza eta jagotza edo tutoretza egiaztatzen duten agiriaren fotokopia / En el supuesto de que existan menores a cargo: Fotocopia del libro de familia correspondiente y/o, en su caso, de los documentos que acrediten la guarda y custodia o tutela.
- Banatze edo dibortzio prozesurik egotekotan, behin betiko sententziako edo aurreko neurrietako fotokopia/ En caso de separación o divorcio, fotocopia de la sentencia definitiva o medidas previas.
- Erroldaketa-ziurtagiria / Certificado de empadronamiento.
- Halakorik duenean DBE jasotzen duela egiaztatuko duen ziurtagiria / Certificado acreditativo de su condición de perceptora de la RGI en caso de serlo.
- Eskabidea egiten duen pertsonak langabeziaren ziozko prestaziorik jasotzen duen ala ez egiaztatuko duen INEM-en ziurtagiria / Certificado del SEPE en el que conste si la persona solicitante figura o no como perceptora de alguna prestación por desempleo.
- Gizarte Segurantzaren Lurraldeko Diruzaintzaren BIZITZA LABORALAREN ziurtagiria / Certificado de vida laboral de la Tesorería Territorial de la Seguridad Social.
- Eskabidea egiten duen pertsona pentsioren baten titular modura ageri den ala ez egiaztatuko duen GSIE-aren ziurtagiria / Certificado del INSS en el que conste si la persona solicitante figura o no como titular de alguna pensión.
- Familiaren egoera ekonomikoa egiaztatzeko dokumentuak (nomina; kontratua; bankuko kontuen mugimenduen agiria, azken 3 hilabetekoa; etab.) / Documentos justificativos de la situación económica familiar (nómina; contrato; movimientos bancarios de las cuentas, de los 3 últimos meses; etc.)
- Eskatu diren beharkizunak betetzen direla benetakotzeko egokitzat jo daitekeen beste edozein dokumentu / Cualquier otro documento que en su caso se considere necesario para acreditar el cumplimiento de los requisitos exigidos.

**II. ERANSKINA****HARRERA PISUKO / OSTATU ZERBITZUKO PLAZA OKUPATZEKO KONTRATUA**

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

BILDU DIRA

..... jna./and., Igorreko Elexalde kaleko 49. zenbakian kokatutako Arratiako Udalen Mankomunitatea Udalaz-Gaindiko Erakundeko Presidentea eta ordezkari gisa.

..... jn./and., nire familiarekin batera / bizikidetza unitate bakar modura, NAN/AIZ zenbakia duena. AUMren larrialdi harrerako etxebizitza batean plaza bat lortzeko kontratu hau onartuz,

HAUXE AZALDU DUTE:

1. jna./and., nire familiarekin batera / bakarrik, aipatutako etxebizitzan plaza bat eskatu dut, Arratiako Udalen Mankomunitatearen konpromisoarekin batera.
2. Arratiako Udalen Mankomunitateak egoitza plaza bat ematen dio sinatzaileari eta, hala badagokio, bere familiari, integrazioa ahalbidetuko duten baliabideak aurkitu arte beharrezko denboran babes egokia eman ahal izateko.
3. Ordenantzan araututakoarekin bat etorritz, bi aldeak baldintza hauen mende egongo dira:

BALDINTZAK**Lehen.- Arratiako Udalen Mankomunitateak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:**

- Integrazio prozesuari ekiteko/denboran eusteko beharrezko babesa ematea.
- Espazio egokiak sortzea egoiliarrak eta/edo familiak beharrianak, zalantzak, kexak eta zailtasunak adierazteko aukera izan dezan, banakakoak zein talde mailakoak.
- Hezkuntza eta gizarte laguntzako jarraipena eta banakako jarraipena egitea, pisuko egoiliar bakoitzaren beharrianak eta baliabideak artatuz. Aipatutakoa erreferentziatzeko gizarte langilearekin adostu beharko da.

**Bigarrena.- Pertsona eskatzaileak eta/edo familiak honako betebeharrak hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:**

- Araudi honetan ezarritakoa jakin beharko dute etxebizitzara sartzean edo horren aurretik, eta araudi honetan ezarritakoa onartzen dutela idatziz adierazi beharko dute, harrera pisu / ostatu zerbitzuaren antolaketa, funtzionamendu eta bizikidetzaren baldintzak onartuz, baita informazio, orientazio eta laguntza zerbitzuen esku hartzea ere.
- Ez titularra, ez beste inor ezingo da etxe horretan udal erroldan erroldatu.
- Zerbitzu hauek erabiltzea eragin duen egoera aldatzeko beharrezko administrazio kudeaketak eta/edo kudeaketa juridikoak eta/edo bestelakoak egin beharko ditu.
- Arratiako Udalen Mankomunitateak baimendu gabeko pertsonen ezingo zaie zerbitzua erabiltzen utzi, haiekin ahaidetasun harremana edo edozein harreman izan arren.
- Pertsona egoiliarrek etxebizitzaren espazioa ondo erabiltzeaz arduratuko dira, baita bertako objektuak, gailuak eta tresnak ondo erabiltzeaz ere; horrez gain, etxebizitza zaintzeaz ere arduratuko dira. Etxebizitza edo bertako objektuak gaizki erabili edo zerbait galduz gero eragindako kalte guztiez erantzun beharko dute.
- Pertsona egoiliarrek auzokideen erkidegoan hartutako erabakiak betetzeko betebeharrak izango dute. Harreran hartutako pertsonen artean desadostasunak edo gatazkak sortuz gero, etxebizitzaren arduradunek egoera aztertuko dute eta beharrezko neurriak erabakiko dituzte; erabaki horiek onartu eta bete egin beharko dira.
- Bizikidetzaren unitate desberdinetako pertsonen etxebizitza partekatuz gero, elkarrekin bizitzeko arauak bete egin beharko dira, besteak beste garbiketan, higiene arloan, ordutegietan, etab. Erabiltzaile bakoitza bere gelako ordena eta garbiketaz eta bizikidetzaren unitate osoaren objektu pertsonalez arduratuko da. Erabilera komuneko elementuetako lanei dagokienez (pasabidea, sarrera, egongela, sukaldea, komuna, etab.), errespetatu eta bete beharreko akordioa lortuko da.
- Etxebizitzan ezingo da bertan bizi direnek sustatutako inolako obrarik. Ezingo da altzari edo etxeko objekturik sartu aldeztu aurretik baimena lortu ez bada; erabilera pertsonaleko objektuak baino ez dira baimenduko.
- Etxebizitza barruan edozein substantzia toxiko, droga, etab. izatea eta/edo kontsumitzea erabat debekatuta dago, baita etxebizitzan gai sukoiak, lehergarriak edo antihieginitzaileak edukitzea edo biltegitzea ere. Harrera pisua / ostatu zerbitzua familia etxebizitza gisa erabiltzea baimentzen da eta, hortaz, bertan ostatu hartu dutenetako inork ezingo du legeak debekatutako jarduerarik garatu (finkari kalte egingo diotenak, arriskutsuak, deserosoak, nekagarriak edo osasunerako kaltegarriak direnak), eta ezingo da irabazteko asmoa duen jarduerarik garatu. Horrez gain, zerbitzuan ezingo da animaliarik sartu. Arma edukitzea berariaz debekatzen da.
- Zerbitzuaz arduratzen diren Arratiako Udalen Mankomunitateko langile arduradunei edo Jarraipen Batzordeak baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzara sartzea ahalbidetuko zaie. Intimitatea beti errespetatuko da eta, horrenbestez, modu berezian tratatuko diren kasuetan salbu, ordutegia bi aldeen artean adostuko da.
- Etxebizitza erabiltzen hastean, hartutako pertsonari etxebizitzako giltza emango zaio, eta etxebizitza hori beste bizikidetzaren unitate batekin partekatuz gero, bere bizikidetzaren unitateari esleitutako gelei dagozkien giltzak ere emango zaizkio. Pertsona egoiliarrek ezingo dute etxebizitzaren giltzaren kopiarik egin, ez eta giltzak



beste norbaiti utzi ere. Onuradun bakoitzaren ardura da. Etxebizitzako egonaldia bukatzean, onuradunek giltzak gizarte langileari edo baliabideaz arduratzen den pertsonari entregatu beharko dizkiote.

- Zerbitzuaren helbidea anonimotasunean gorde beharko da.
- Zerbitzuan hobetu edo konpondu beharreko edozer egonez gero, Arratiako Udalen Mankomunitateari jakinaraztea; esku hartzea berariaz debekatzen da, aldez aurreko baimenik ez badago. Matxura bat etxebizitzako onuradunaren ekimenez konpontzea soilik baimenduko da jaiegunetan edo udal zerbitzuen funtzionamendu ordutegitik kanpo sortutako premiazko egoeretan; horrelakoetan, aipatutako zerbitzuei ahal bezain azkar jakinaraziko zaie.
- Araudi honetan eta ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera ebatzitako prezioa ordaintzea.
- Etxebizitzara sartzean etxebizitzako objektuak eta elementuak berrikustea. Egonaldia bukatzerakoan, objektuak eta elementuak berrikusiko dira, baita etxebizitza eta altzariak egoera onean egotea ere. Inbentarioan jasotako elementuren bat falta bada edo egoera onean ez badago, erabiltzaileak kasuan kasuko elementua konpondu edo berria erosteko gastuak ordaindu beharko ditu.
- Arratiako Udalen Mankomunitateak eskaera egiten dionetik zazpi egun naturaleko epean etxebizitza utzi beharko du.

Hirugarrena.- Kontratu hau bukarazteko kausak honako hauek izango dira:

- Gizarte ongizateko langileei edo haiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzea debekatzea.
- Zerbitzua modu desegokian edo neurrigabean erabiltzea. Etxebizitza modu desegokian erabili dela ulertuko da aldaketak egiten badira elkar errespetatzeko eta bizikidetzarako arauetan, zerbitzuko zuzendaritzako edozein pertsonari jakinaraziz gero, kontratuan agertzen ez diren pertsonari zerbitzuan sartzen eta egoten uzten bazaie, zerbitzuaren baliabideak eta instalazioak modu desegokian erabiltzen badira, bertako jarduerak asaldatur gero, edozein motatako liskarrak sustatu edo horietan parte hartzen bada, norbait irainekin edo biraoekin iraintzen bada edo errespetu gabe tratatur gero, edozein objektu lapurtuz gero edo norberaren edo beste pertsonen segurtasuna nahita arriskuan jartzen bada. Erabilera neurrigabea dela ulertuko da etxebizitzako ur, gas edo beste edozein hornidura gehiegi erabiliz gero.
- Bi ordainagiri arrazoirik gabe ez ordaintzeagatik.

Laugarrena.- Kontratu hau azkentzeko kausak honako hauek izango dira:

- Harrerarako aurreikusitako denbora tartea bukatzea.
- Pertsona erabiltzaileak uko egitea.
- Heriotza.
- Zerbitzua ematea eragin zuen beharrianaren arrazoia desagertu bada.
- Zerbitzua emateko kontuan hartutako datuak faltsuak izatea edo datuak ezkutatzea.
- Zerbitzua jasotzeko eskatutako betekizunen bat galtzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztea.



- Zerbitzuko hiru ordainagiri arrazoirik gabe ez ordaintzea.
- Araudi honetan pertsona erabiltzaileentzat aurreikusitako bestelako betebeharrak behin eta berriz ez betetzea.
- Bi egun baino gehiagoz baliabidean ez egotea eta ospitalean ingresatuta egoteagatik edo ezinbesteko arrazoiekin ez justifikatzea. Denbora tarte hori egoera berezietan luzatu ahalko da; dagokion txosten teknikoan justifikatu beharko da.
- Araudiko edozein puntu ez betetzeagatik, horrek pisuan bizi diren gainerako pertsonak arriskuan jartzen baditu.

Kontratu honen indarraldia hilabetekoa izango da; AUMko lantalde teknikoak erabakitakoaren arabera luzatu ahalko da.

Arau garrantzitsu gisa ezarri da baliabidetik alde eginez gero, erabiltzaileak eguneko tarte izango duela bere gauzak jasotzeko; AUMek aipatutako gauza horiek kendu ahalko ditu, kasuko gizarte langileari horren berri eman ondoren.

Eta hala jasota gera dadin, eta aldean adostasuna frogatze aldera, dokumentu hau bi ale sinatu da aipatutako lekuan eta datan,

AUMeko Presidentea

Egoiliarra eta/edo familia